soldatapeko langilerik ez duela jasotzen duen adierazpena (beharrezkoa bada). - Onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, non diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzak zedarrituko diren, zenbatekoa eta jatorria zehaztuta, edo, kasua bada, ez duela bestelako laguntzarik ez eskatu ez eskuratu azaltzeko adierazpena. <u>c) Kontratu txikien zenbatekoa gainditu arren dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.</u> Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 39.999 eurotik gorakoa bada obra-kontratuetan (BEZik gabe), eta 14.999 eurotik gorakoa hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan (BEZik gabe), pertsona edo entitate onuradunak gutxienez hiru hornitzailei eskatu beharko die eskaintza egiteko, obra egin, zerbitzua eskaini edo ondasunak emateko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta haren ezaugarri bereziak direla eta merkatuan ez badago lan hori egin, zerbitzu horiek eskaini edo ondasun horiek hornitzen dituen aski entitate, edo dirulaguntza eman aurretik gastua egina badago. <u>d) Emandako dirulaguntza ez justifikatzea edo behar bezala ez justifikatzea.</u> Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar dezake berekin, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.	asalariado a cargo para el desarrollo del proyecto (si procede). - Declaración responsable de la persona o entidad beneficiaria en la que detalle otras subvenciones o ingresos que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación de importe y procedencia o, en su caso, declaración indicando que no ha solicitado ni es perceptora de otras subvenciones para el proyecto. <u>c) Gastos subvencionables que superen la cuantía de un contrato menor.</u> Cuando el importe del gasto subvencionable supere en el contrato de obras la cuantía de 39.999 euros (IVA excluido) y en suministros y servicios la cuantía de 14.999 euros (IVA excluido), la persona o entidad beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la obra, la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiere realizado con anterioridad a la subvención. <u>d) Falta de justificación o justificación insuficiente de la subvención concedida.</u> El incumplimiento de la obligación de justificar o la justificación insuficiente podrá conllevar la obligación de reintegrar las cantidades percibidas más el interés correspondiente, en los términos establecidos en el artículo 37.1 de la Ley General de Subvenciones.
Bederatzigarrena.- Diruz lagunduko ez diren gastuak. Hitzarmen honen bidez ez dira lagunduko honelako gastuak: ▪ Diruz lagundutako jarduerarako ezinbestekoak ez diren gastuak, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluari jarraituz. ▪ Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke (adibidez, BEZa), eta errentaren gaineko zerga pertsonalak (Ordenantzaren 30.8 artikulua).	Novena.- Gastos no subvencionables No se considerarán gastos subvencionables en el presente Convenio: ▪ Los gastos que no resulten estrictamente necesarios para la realización de la actividad subvencionada conforme al artículo 30 de la Ordenanza General de Subvenciones. ▪ Los impuestos indirectos susceptibles de recuperación o compensación (por ejemplo el IVA), ni los impuestos personales sobre la renta (art.30.8 de la Ordenanza).

Hamargarrena.- Zeharkako kostuak. Gastu orokor edo zeharkako gastu gisa esleitutako zenbatekoa ez da amaierako aurrekontuaren zenbatekoaren % 10 baino handiagoa izango Zeharkako kostutzat jotzen dira diruz lagundutako dena delako ekintzari zuzenean egotzi ezin zaizkion gastu orokorrak izan arren hura burutzeko ezinbestekoak direnak, esaterako erakundea bera mantentzeko gastuei dagozkienak (argia, telefonoa, gasa, ura, alokairua, garbiketa, aholkularitza) eta kudeaketa eta laguntza arloko langileen kostuak.	Décima.- Costes indirectos La cantidad asignada en concepto de gastos generales o gastos indirectos no excederá del 10% del importe del presupuesto final. Se consideran costes indirectos los gastos generales que sin ser directamente imputables a la concreta actividad subvencionada, son necesarios para la realización de la misma, como por ejemplo los gastos de mantenimiento de la propia entidad (luz, teléfono, gas, agua, alquiler, limpieza y asesoría) y el coste de personal de gestión y apoyo.
Hamaikagarrena.- Azpikontratazioa. Baldin eta entitate onuradunak hirugarren batekin hitzartzen badu azken honek burutzea, osorik edo zati batean, dirulaguntzaren xede den jarduera, azpikontratazioa joko da jarduera hori. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen dira entitate onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz gauzatzeko egin beharreko gastuak. Diruz lagundutako jardueraren % 50eraino azpikontratatu ahal izango du entitate onuradunak (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29. artikuluan adierazitako baldintzetan. Entitate onuradunaren aurrean baino ez dute erantzun beharko kontratistek, hark izango baitu diruz lagundutako jarduera gauzatzearen erantzukizun osoa Administrazioaren aurrean. Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handitzen duen ekintzarik, haren edukiari balio erantsirik ez badakarkio. Halaber, 29.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, entitate onuradunak berekin lotura duten pertsona edo entitateekin hitzartu ahalko du jarduera gauzatzea, osorik edo zati batean, baldin eta aurretiaz organo emailearen aurrean azpikontratatzeko baimenaren eskabidea (webgunean dago) aurkeztu eta organo emailearen baimena lortzen badu, eta diruz lagundu daitekeen zenbatekoak ez badu lotura duen entitateak egindako kostua gainditzen. Kostuaren ziurtapena justifikazioan jasoko da, onuradunaren gastuak ziurtatzeko ezarritako baldintza beretan.	Undécima.- Subcontratación. Se considera que existe subcontratación cuando la entidad beneficiaria concierta con terceros la realización total o parcial de la actividad que constituye el objeto de la subvención. No tendrán tal consideración los gastos que tenga que realizar la entidad beneficiaria para la realización por sí misma de la actividad subvencionada. La entidad beneficiaria podrá subcontratar parcialmente hasta el 50 % de la actividad subvencionada en los términos señalados en el artículo 29 de la Ordenanza General de Subvenciones. Los contratistas quedarán obligados sólo ante la entidad beneficiaria, que asumirá la total responsabilidad de la ejecución de la actividad subvencionada frente a la Administración. En ningún caso podrán subcontratarse actividades que, aumentando el coste de la actividad subvencionada, no aporten valor añadido al contenido de la misma. Asimismo, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 29.7, la entidad beneficiaria podrá concertar la ejecución parcial o total con personas o entidades vinculadas, siempre que presente la solicitud de autorización para subcontratación (Anexo de subcontratación, está en la web), que obtenga la autorización del órgano concedente y que el importe subvencionable no exceda del coste incurrido por la entidad vinculada. La acreditación del coste se realizará en la justificación en los mismos términos establecidos para la acreditación de los gastos de la entidad beneficiaria.

Gizarte Politiken Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten da diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzeko eta eskatzailearekin lotura duten pertsona edo entitateekin gauzatzeko baimena emateko eskumena.	Se delega la competencia para autorizar la subcontratación de las actividades subvencionadas y la ejecución con personas o entidades vinculadas en el Concejal-Delegado del Departamento de Políticas Sociales.
Hamabigarrena.- Dirulaguntza galtzea eta itzultzea. Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 40. artikuluan adierazten diren kasuetan, itzuli egin beharko dira jasotako zenbatekoak, aldez aurretik dagokion dosierra izapidetuta.	Duodécima.- Pérdida de la subvención y reintegro. Procederá el reintegro de las cantidades percibidas, previa tramitación del oportuno expediente, en los supuestos previstos en el artículo 40 de la Ordenanza General de Subvenciones
Hamahirugarrena.- Onuradunen betebeharrak. – Finantzatutako jarduera burutzea, eta jasotako funtsak horretarako baliatzea, dirulaguntza emateko hitzarmenean adierazi bezala. – Proiektuak gauzatzean edozein aldaketa egiten bada, Gasteizko Udalaren Gizarte Politikoei Sailari jakinaraztea. – Helburu berarekin beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional nahiz nazioartekoren batek emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, Gasteizko Udalaren Gizarte Politikoei Sailari jakinaraztea, baita zertarako baliatu diren ere. Jakin bezain laster eman beharko	Décimo tercera.- Obligaciones de la entidad beneficiaria. – Realizar la actividad financiada y aplicar a la misma los fondos percibidos en los términos del convenio de concesión de la subvención. – Comunicar al Departamento de Políticas Sociales del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz cualquier modificación en la realización de los proyectos. – Comunicar al Departamento de Políticas Sociales del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de otras administraciones o entes públicos o

da horren berri. - Gasteizko Udalaren Gizarte Politikoe Sailaren aurrean egiaztatzea —hark hitzarmen honetako diru-kopurua ordaindu aurretik— zerga-betebeharrak bete dituela eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu, eta orobat bete dituela udal ogasunarekiko betebeharrak. - Jasotako diru-kopuruak itzultzea —baldin eta hitzarmenaren xede diren proiektu edo jarduerak betetzen ez baditu edo ezarritako baldintzetan betetzerik ez badauka—, edota diruz lagundutako kostutik gain eskuratutako kopurua. - Diruz lagundutako proiektuaren jarraipena egite aldera, eskatutako agiri guztiak eman behar zaizkio Udalari. - Agiriak egiaztatzeko ekintzen mende jartzea, baita Gasteizko Udaleko Kontu Hartzailatza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta eskumena aitortua zaien bestelako organoei buruzko legedian aurreikusitakoen mende ere. - Dirulaguntza justifikatzea, hitzarmen honen zortzigarren klausulan ezarritakoaren ildotik.	privados, nacionales o internacionales, y la aplicación dada a los anteriores. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca. - Acreditar ante el Departamento de Políticas Sociales del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la seguridad social, así como con sus obligaciones con la hacienda municipal, con anterioridad al abono del importe objeto de este convenio. - Proceder al reintegro de las cantidades percibidas, en los supuestos de, incumplimiento o imposibilidad de cumplimiento de los proyectos o actividades objeto del convenio en las condiciones establecidas, o del exceso obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada. - Dar cuenta al Ayuntamiento de los documentos que se le soliciten como seguimiento del proyecto subvencionado. - Someterse a las actuaciones de comprobación de documentación y a las de control financiero que corresponde a la Intervención General del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y a los previstos en la legislación del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y otros órganos que tengan atribuida dicha competencia. - Llevar a cabo la justificación de la subvención de acuerdo a lo establecido en la cláusula octava del presente convenio.
Hamalaugarrena.- Publizitatea eta zabalkundea. Hitzarmen honen xedearekin loturiko komunikazio, publizitate eta zabalkunde ekintza guztiak, baita edozein ekitaldi publiko edo pribatu, aurkezpen, itxiera-ekitaldi eta antzekoak antolatzerakoan ere, Gasteizko Udalaren lankidetzara adierazi beharko da. Leku publiko eta ikusgarri batean “Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz/Vitoria-Gasteizko Udala” erakunde-marka eta “VITORIA-GASTEIZ!” hiri-marka jarriko dira, proiektua finantzatzen duen entitate gisa, proiektuari lotuta argitaratzen den publizitatean eta dokumentazioan. Horretarako, Udalaren Proiektuen Zerbitzuak marken bertsio eta formatu grafiko desberdinak bidaliko ditu posta elektronikoz (imagicorporativa@vitoria-gasteiz.org), baita horiek aplikatzeko araudia eta	Décimo cuarta.- publicidad y difusión En todas las acciones de comunicación, publicidad y propaganda así como la organización de cualquier acto público o privado, presentaciones, clausuras y similares que guarden relación con el objeto de este convenio, deberá reflejarse la colaboración del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Se dará a conocer en lugar público y visible la marca institucional “Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz/Vitoria-Gasteizko Udala” y de la marca “VITORIA-GASTEIZ!” de Ciudad, como entidad financiadora del proyecto, tanto en la publicidad, como en la documentación que se edite. A tales efectos el Servicio municipal de Proyectos, facilitará por correo electrónico (imagicorporativa@vitoria-gasteiz.org), las

jarraibide orokorrak ere; orobat, berariazko onespena emango die ekintzetan edo erabilitako publizitate euskarrietan markaren agerraldi guztiei. Antolatzen diren komunikazio-jarduera guztiak (aurkezpenak, prentsurrekoak eta abar), baita hitzarmen honen xede diren edukiaren eta jardueren inguruko publizitate-euskarriak eta material grafiko guztia ere, bi alderdiek adostuak izan beharko dute alde zuzenetik, edukiari zein itxurari dagokionez, eta edukiaren erantzule bakarra entitate onuraduna izango da. Jarduerari zabalkundea emateko herritar guztiei zuzendutako liburuxka, kartel nahiz beste edozein euskarri bi hizkuntza ofizialetan egongo dira, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzan eta hurrengo klausulan adierazitakoari jarraituz.	marcas en sus diferentes versiones y formatos gráficos, así como la normativa con las consideraciones generales a tener en cuenta en su aplicación y revisará y dará conformidad expresa en todas las apariciones de marca en cualquiera de las acciones o soportes publicitarios utilizados. Todos los actos comunicativos que se organicen (presentaciones, ruedas de prensa,...), así como los soportes publicitarios y material gráfico que se edite en relación con el contenido y actividades objeto de este convenio, deberán ser previamente consensuadas entre las dos partes, tanto en lo que respecta a su forma como a su contenido, siendo esta última responsabilidad exclusiva de la entidad beneficiaria. La difusión de estas actividades mediante folletos, carteles o cualquier otro soporte al que tenga acceso el público en general, se hará en ambas lenguas oficiales, tal y como se recoge en la Ordenanza Municipal de Subvenciones y en la siguiente cláusula.
Hamabosgarrena.- Hizkuntza-normalizazioaren printzipioak aplikatzea. Hitzarmena egikaritzean aintzat hartuko da euskararen eta gaztelaniaren —bi hizkuntzen— koofizialtasuna, eta jarduera elebitasun-irizpideen eta herritarren hizkuntza-eskubideen arabera gauzatu beharko da, halaxe xedatzen baitute 10/1982 Legeak, Autonomia Estatutuak, 86/1997 Dekretuak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuak, eta Gasteizko Udalean indarrean dagoen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak. Hala, hitzarmen honekin lotura duten izaera orokorreko komunikazioek ele bietan egon beharko dute: web orria, sare sozialetan argitaratutakoa, errotuluak, seinaleztapena, jarraibideak, publizitatea, zerbitzua emateko dokumentuak, megafoniaz egindako komunikazioak, eta hartzaile jakinik gabeko gainerako komunikazio guztiak. Bestalde, egin beharreko jarduerak herritarrekin edo erabiltzaileekin harreman zuzena izatea badakar edo hitzarmen honen bidez zerbitzu bat ematen bazaie, egiaztatu beharko da Udalak berak bete beharko lituzkeen antzeko hizkuntza-baldintzak bermatuko direla, euskara zerbitzu-hizkuntza izan dadin gutxienez, eta jarduera	Décimo quinta.- Aplicación de los principios de normalización lingüística En la ejecución del convenio se tendrá en cuenta la cooficialidad y actividades del euskera y del castellano, de ambas lenguas, de los bilingüismos y criterios y de los derechos lingüísticos de la ciudadanía, tal y como establece la Ley 10/1982, el Estatuto de Autonomía, el Decreto 86/1997, el Decreto 179/2019, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi y el Plan de Normalización del Uso del Euskera vigente en el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Así, las comunicaciones generales relacionadas con este convenio deberán estar en bilingüe: páginas web; publicaciones en redes sociales; rotulación y señalización; instrucciones; publicidad; documentos de prestación de servicios; comunicaciones por megafonía; todas las demás comunicaciones sin persona destinataria en concreto. Por otra parte, cuando la actividad a desarrollar implique una relación directa con la ciudadanía o personas usuarias o a través del presente convenio se les preste un servicio, deberá acreditarse que se garantizarán unas condiciones lingüísticas similares a las que

guztiak hizkuntza ofizial batean zein bestean egin ahal izan daitezen.	debería cumplir el propio ayuntamiento, de forma que el euskera sea, al menos, lengua de servicio y todas las actividades se puedan desarrollar indistintamente en una u otra lengua oficial.
Hamaseigarrena.- Genero berdintasunaren printzipioak aplikatzea. Hitzarmena sinatzen duen entitateak Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legean xedatutakoa bete beharko du. Era berean, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko 14/2012 Legea errespetatu beharko du, baita Yogyakarta printzipioak ere, hots, sexu-joeraren eta genero-identitatearen arloan giza eskubideen nazioarteko legeria ezartzeari buruzko printzipioak. Horrela, giza eskubideen alorreko legedia eta dokumentazioa errespetatzeaz gain, hitzarmena sinatzen duen entitatearen proiektuak bat egingo du Gasteizko Udalak bultzatzen dituen genero berdintasuneko politikekin. Hori dela eta, konpromiso hauek hartzen ditu: - Genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala txertatzeko konpromisoa, herritarren egoera eta premia desberdinak sistematikoki kontuan hartuz; generoaren, klase sozialaren, jatorri kulturalaren, administrazio-egoeraren, adinaren edo dibertsitate funtzionalaren arabera desberdintasunak agerian uztera edo arintzera bideratutako helburu eta jarduketa espezifikoak txertatuz, eta ekintza positiboak aurreikusiz. - Generoa kontuan hartzerakoan, pertsona guztiak emakume edo gizon heterosexualak direla —zisheteronormatibitatea— ziurtzat ez jotzeko konpromisoa, ezta familia guztiak nuklearrak direla ere. Orientazio sexuala eta genero-identitatea tratatzerakoan, patologizazioa, biktimismoa eta <i>pinkwashing</i> saihesteko konpromisoa. - Egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu-bilketetan sexua/generoa aldagaia sistematikoki txertatzeko konpromisoa —emakumea/gizona/ez-binarioa edo entitateak egokitzen dituzten duen beste forma bat—. - Hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista eta	Decimo sexta.- Aplicación de los principios de Igualdad de Género La entidad convenida ha de cumplir las disposiciones establecidas en la Ley Orgánica 3/2007 para la Igualdad efectiva entre Mujeres y Hombres, y en la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres del País Vasco. Asimismo, debe ajustarse a la Ley 14/2012, de No Discriminación por Motivos de Identidad de Género y de Reconocimiento de los Derechos de las Personas Transexuales, y a los Principios de Yogyakarta: Principios sobre la aplicación de la legislación internacional de Derechos Humanos en relación con la orientación sexual y la identidad de género. De esta manera, además de respetar esta legislación y documentación en materia de derechos humanos, el proyecto de la entidad convenida queda alineado con las políticas de Igualdad de Género que impulsa el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Por ello se compromete a : - Integrar la perspectiva de género e interseccional, considerando sistemáticamente las diferentes situaciones y necesidades de la población; incorporando objetivos y actuaciones específicas dirigidas a evidenciar o paliar las desigualdades en función del género, la clase social, el origen cultural, la situación administrativa, la edad o la diversidad funcional; y previendo acciones positivas. - A la hora de considerar el género, no dar por hecho que todas las personas son mujeres u hombres heterosexuales —cisheteronormatividad— ni que todas las familias son de tipo nuclear. En el tratamiento de la orientación sexual y la identidad de género, huir de la patologización, el victimismo y el pinkwashing. - Incluir sistemáticamente la variable sexo/género —mujer/hombre/no binario u otra forma que la entidad considere, en su caso, más adecuada— en las estadísticas, las encuestas y la recogida de datos que lleven a cabo. - Utilizar el lenguaje y las imágenes de manera

inklusiboa egiteko konpromisoa, pertsonak edo pertsona-taldeak bidezko modu batean irudikatzeko, generoaren edo egiturazko beste edozein desberdintasun-iturriren arabera eta estereotipoak indartu gabe.	no sexista e inclusiva, con el objetivo de representar a las personas o grupos de personas de una manera justa y que no refuerce los roles y los estereotipos en función del género o de cualquier otra fuente de desigualdad estructural.
Hamazazpigarrena.- Datu pertsonalak babestea. Hitzarmen hau izenpetzen duen entitateak adierazten du betetzen duela datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia, eta, bereziki, bere fitxategiei dagozkien segurtasun-neurriak. Gainera, konpromisoa hartzen du datu horiei Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan aurreikusitako segurtasun-neurriak aplikatuko diela, eta ez duela datu bakar bat ere lagako.	Décimo séptima.- Protección de datos de carácter personal La entidad que suscribe este Convenio manifiesta cumplir con la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal y en particular con las medidas de seguridad correspondientes a sus ficheros. Además, se compromete a aplicar a los datos, las medidas de seguridad previstas en la ley orgánica 3/2018 de 5 de diciembre y Reglamento (UE) 2016/679, del Parlamento Europeo y del Consejo de,27 de abril, de protección de datos de carácter personal, y a no realizar cesión alguna de los referidos datos.
Hemezortzigarrena.- Aldatzea. Tokiko Gobernu Batzarrak entitate onuradunak aldeztu aurretik eskatuta. Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabidea baimendu ahal izango da, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Jarduera egiteko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da eskabidea.	Décimo octava.- Modificación El acuerdo de modificación se adoptará por la Junta de Gobierno Local y previa solicitud de la entidad beneficiaria. De conformidad con lo establecido en el artículo 25 de la Ordenanza General de Subvenciones, la solicitud podrá ser autorizada siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceras personas y deberá presentarse antes de que finalice el plazo de vigencia del convenio
Hemeretzigarrena.- Suntsiarazteko arrazoiak. Izenpetzen dutenentzat hitzarmena suntsiarazteko arrazoi izango dira bertan ageri diren klausulak nahiz urriaren 2ko 40/2015 Legearen 51 artikuluan jasotakoak ez betetzea.	Décimo novena.- Causas de resolución Son causas de resolución para las partes firmantes del presente convenio, el incumplimiento de las cláusulas contenidas en el mismo, así como las recogidas en el artículo 51 de la Ley 40/2015, de 2 de octubre.

Hogeigarrena.- Izaera eta erregimen juridikoa. Hitzarmen hau izaera administratibokoa da, eta administrazio-zuzenbidearen mende egongo da, interpretatzeari eta garatzeari dagokionez. Hitzarmen honen inguruko edozein kontu dela eta —interpretatzea, aldatzea, eraginak, suntsiaraztea— auzia sortuz gero, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoa izango da. Hitzarmen honetan aurreikusi gabekoetan, Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza hartuko da kontuan, baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren araudia ere —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onetsia—, eta aplikagarri diren gainerako araudietan xedatutakoa.	Vigésima.- Naturaleza y Régimen Jurídico. El presente convenio tiene naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el derecho administrativo. Las cuestiones litigiosas a que pueda dar lugar la interpretación, modificación, efectos o resolución del mismo serán de conocimiento de la jurisdicción contencioso-administrativa. Será de aplicación en todo aquello que no hubiera sido contemplado en las presentes estipulaciones, la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, así como la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento, aprobado por RD 887/2006, de 21 de julio, así como demás normativa concordante y de pertinente aplicación.
Azaldutako guztiarekin ados daudela eta onartzen dutela erakuste aldera, hitzarmen hau izenpetu dute esku hartzen duten bi alderdiek. Vitoria-Gasteizen, 202X(e)ko apirilaren 11(e)an.	En prueba de conformidad y aceptación de cuanto queda expresado, las partes intervinientes firman el presente convenio. En Vitoria-Gasteiz, 11 de abril de 2025

Vitoria-Gasteizko Udalaren izenean
Por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

"AFARABA" ALZHEIMER ETA BESTE
DEMENTZIA BATZUK ELKARTEAREN
izenean

LUIS EDUARDO ROYERO JIMENEZ

**MIGUEL ANGEL ECHEVARRIA
DAUBAGNA**

Eranskinak: azpikontratazioa, euskararen jarraipen-fitxa
Anexos: de subcontratación, ficha de seguimiento de euskera